

**EUSKALTEL SA-REN
ADMINISTRAZIO-
KONTSEILUAREN
ARAUDIA**

ATARIKO KAPITULUA

1. artikulua. Araudiaren helburua

1. Araudi hau (“Araudia”) Euskaltel SAren (“Sozietatea”) Administrazio Kontseiluak onartu du, Akziodunen Batzar Nagusiaren txostena izanik, 2010eko uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren (“Kapital Sozietateen Legea”) 528. artikuluan xedatutakoa betetzeko. Administrazio Kontseiluaren jarduera-printzipioak, antolaketarako eta funtzionamendurako oinarritzko arauak eta kideen jokabide-arauak jasotzen ditu Araudi honek, helburutzat harturik gardentasun, eraginkortasun, bultzada eta kontrol handiagoa lortzea interes soziala administratzeari, gainbegiratzeari eta ordezkatzeari dagokionez dituen funtzioetan.
2. Administrazio Kontseiluari aplikagarri zaion araubidea garatzen eta osatzen du Araudiak. Indarrean dagoen arautegiak eta Sozietatearen Estatutuek zehazten dute araubide hori. Araudia egiteko orduan, kontuan izan dira nazioarteko merkatuetan onarpena duten gobernu onerako gomendioak.
3. Barne-arauen bidez erregulatuko dira sozietatearen taldeko beste sozietateen jarduera-printzipioak eta administrazio-organoen antolaketa eta funtzionamendua, hala dagokionean, eta Araudi honetan jasotako printzipioetara moldatu behar dira dagokionean.

2. artikulua. Aplikazio-eremua

Araudi hau aplikatzen zaie bai Administrazio Kontseiluari, haren organo delegatuei —kide anitzekoak nahiz kide bakarrekoak— eta barne-eremuko batzordeei, bai haiek osatzen dituzten kideei. Araudi honetan Sozietateko kontseilarietzat zehazten diren jarduera-arauak aplikagarri zaizkie, halaber, Sozietateko goi-zuzendariei, haien berariazko izaerarekin eta egiten dituzten jarduerekin bateragarriak diren heinean. Araudi honen ondorioetarako, “goi-zuzendari” dira zuzeneko Administrazio Kontseiluaren edo, halakorik bada, lehen exekutiboaren (lehendakari exekutiboa, kontseilari delegatua edo zuzendari nagusia, kontseilaria izan ala ez) mende dauden zuzendariak, eta, beti, Sozietatearen barne-ikuskaritzaren arduradunaren mendekoak.

3. artikulua. Onarpena eta aldaketa

1. Administrazio Kontseiluak Araudia aldatu ahal izango du, bertaratutako kontseilarien edo ordezkatuena gehiengo osoz erabakiz gero, horretarako ekimena aurkeztu badu Administrazio Kontseiluko lehendakariak, kontseilarien herenak (1/3) edo Ikuskaritza eta Kontrol Batzordeak. Justifikazioko memoria gehitu behar zaio aldaketa-proposamenari, helburu den aldaketaren arrazoiak eta aldaketaren helmena jasotzen dituen, baita Ikuskaritza eta Kontrol Batzordeak egindako txostena ere, baldin eta ez badu Batzorde horrek egiten proposamena.
2. Proposamen horri buruzko erabakia hartu behar duen Administrazio Kontseiluaren deialdiarekin batera, aldaketa-proposamenaren eta justifikazioko memoriaren testu osoa aurkeztuko da.
3. Akziodunen Batzar Nagusiaren lehen saioan eman behar du Araudian adostu diren aldaketen berri Administrazio Kontseiluak.

I. KAPITULUA. KONTSEILUAREN FUNTZIOA

4. artikulua. Administrazio Kontseiluaren eskumenak

1. Eskumena du Administrazio Kontseiluak legez edo Sozietatearen Estatutuen bidez Akziodunen Batzar Nagusiari esleitzen ez zaizkion gai guztiei buruzko akordioak onartzeko.
2. Hauek dira Administrazio Kontseiluaren misioaren muinak: Sozietatearen estrategia onartu eta ongi antolatzea, abian jartzeko, eta gainbegiratu eta kontrolatzea goi zuzendaritzak betetzen dituela zehaztutako helburuak eta errespetatzen dituela Sozietatearen helburua eta interes soziala.

Horretarako, Sozietatearen politika eta estrategia orokorrak onartzeko eskumena du Administrazio Kontseiluaren osoko bilkurak; hauek, zehazki: (i) plan estrategikoa edo negozio-plana, eta urteko kudeaketa-helburuak eta aurrekontuak; (ii) inbertsio- eta finantza-politika; (iii) sozietate-taldearen egituraren definizioa; (iv) korporazioaren gobernu-politika; (v) korporazioaren gizarte-erantzukizunaren politika; (vi) arriskuen kontrol- eta kudeaketa-politika, zerga-arriskuak barne, eta informazioa emateko eta kontrola egiteko barne-sistemen aldian aldiko segimendua; (vii) dibidenduen eta autozorroaren politika, eta, bereziki, haien mugena.

3. Administrazio Kontseiluak ditu Sozietatea administratzeko eta ordezkatzeko botere eta gaitasun zabalenak. Horri kalte egin gabe, zuzendaritzako goi-karguen eta administrazio-organo delegatuen esku utzi ahal izango du Administrazio Kontseiluak kudeaketa eta zuzendaritza arrunta, baita Sozietatearen politikak eta kudeaketa-ildoen zabalkunde, koordinazio eta inplementazio orokorra ere. Hala, bere zeregina bideratu ahal izango du Sozietateak eta haren taldeak jarraitu beharreko politika, estrategia eta ildo orokorrak definitu, gainbegiratu eta haien segimendua egin.
4. Ezin dira eskuordetu legeak edo estatutuak dioenean Administrazio Kontseiluak zuzenean ezagutu behar dituela eskumenak.
5. Onartutako akordio zehatzak aurrera eramatea legez eskuordetzearen eta ahalordetzearen kalterik gabe, zuzenean beteko ditu Administrazio Kontseiluak eskumen hauek, bere ekimenez edo dagokion barne-organoak hala proposatuta:

A) Akziodunen Batzar Nagusiari dagokionez:

- a) Akziodunen Batzar Nagusirako deialdia egitea, eta deialdiari dagozkion iragarpenak argitaratzea.
- b) Sozietatearen Estatutuak aldatzea proposatzea Akziodunen Batzar Nagusiari.
- c) Batzarraren Araudia aldatzea proposatzea Akziodunen Batzar Nagusiari, dagokion justifikazioko txostena duela.
- d) Akziodunen Batzar Nagusira eramatea proposamena Sozietatea holding konpainia bihurtzeko, sozietate filialak erabiliz ordura arte Sozietateak garatzen dituen funtsezko jarduera batzuk egiteko, Sozietateak haien gaineko erabateko nagusigoa izanik ere.
- e) Bazkideen Batzar Nagusira eramatea funtsezko aktibo operatiboak eskuratzeko edo besterentzeko eragiketak, betiere Kapital Sozietateen Legearen 160. artikuluan jasotakoa betez.

- f) Akziodunen Batzatzarri proposatzea Sozietatearen likidazioaren pareko ondorioa duten eragiketak onartzea.
 - g) Akziodunen Batzar Nagusiari aurkeztea izaera independentea ez duten kontseilarien izendapenei, berrespenei eta berrautatzeari buruzko proposamenak, aurretiaz Izendapen eta Ordainketa Batzordearen txostena izanik. Halaber, kontseilarien kargu-uzteak ere aurkeztea.
 - h) Akziodunen Batzar Nagusiak onartutako akordioak aurrera eramatea, eta batzarrak esleitu dion beste edozein funtzio betetzea.
- B) Administrazio Kontseiluaren antolaketari eta eskumenak eskuordetzeari eta ahalordetzeari dagokienez:
- a) Araudi hau onartzea eta aldatzea, aurretiaz Ikuskaritza eta Kontrol Batzordearen txostena izanik.
 - b) Administrazio Kontseiluak edo administrazio-organo delegatuek emango dituzten botere orokorren egitura definitzea.
- C) Sozietateak eman beharreko informazioari dagokionez:
- a) Sozietatearen informazioa ematea akziodunei, agintari eskumendunei, merkatuei eta, oro har, publikoari, berdintasun-, gardentasun- eta egiazkotasun-irizpideei jarraikiz.
 - b) Sozietatearen urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta emaitzak aplikatzeko proposamena prestatzea. Hala dagokionean, urteko kontu eta kudeaketa-txosten bateratua ere prestatzea, Akziodunen Batzar Nagusiari aurkezteko.
 - c) Kotizatua izateagatik Sozietateak aldizka publiko egin behar duena finantza-informazioa onartzea.
- D) Kontseilarietara eta goi-zuzendarietara dagokienez:
- a) Administrazio Kontseiluko barne-karguak eta Administrazio Kontseiluaren batzordeetako kideak eta barne-karguak izendatzea eta berritzea.
 - b) Kontseilariak izendatzea kooptazio bidez.
 - c) Kontseilari delegatuak izendatzea eta kargugabetzea, eta aurrez onartzea Sozietatearen eta funtzio betearazleak izango dituzten kontseilarien artean egingo diren kontratuak, haietan jasorik zer kontzeptuk ematen duten aukera funtzio horiek betetzeagatik ordainsaria eskuratzeko.
 - d) Kontseilari bakoitzaren ordainsaria onartzea, Izendapen eta Ordainketa Batzordearen aurretiazko proposamena izanik, eta betiere Akziodunen Batzar Nagusiak onartutako ordainsari-politikari jarraikiz.
 - e) Sozietatearen organigramaren definizioa eta aldaketa eta Sozietateko goi-zuzendarien izendapena eta kargugabetzea onartzea (2. artikuluan definitu den moduan), eta kargutik kentzen direnean jasoko dituzten konpentsazioak eta kalte-ordainak zehaztea.

Goi-zuzendariak dira zuzenean Administrazio Kontseiluaren edo hala badagokio kontseilari delegatuaren mende dauden zuzendariak, eta, beti, zuzendari nagusia edo Sozietateak izaera hori aitortzen dion beste edozein zuzendari.

- f) Goi-zuzendarien ordainsari-politika nahiz haien kontratuen oinarrizko baldintzak onartzea, kontseilari delegatuaren proposamena izanik, halakorik bada, eta aurretiaz Izendapen eta Ordainketa Batzordearen txostena jasota.
 - g) Sozietateak akziodunekin, kontseilariekin eta goi-zuzendariekin nahiz haiekin erlazionatutako pertsonekin izan ditzakeen interes- eta eragiketa-gatazkek arautzea, aztertzea, eta haiei buruz erabakitzea.
 - h) Leialtasun-betekizunetik eratortzen diren betebeharrak baimentzea edo barkatzea, aplikagarri zaion legedian xedatutakoari jarraikiz.
- E) Beste eskumen batzuk:
- a) Dibidenduen politika eta dagozkien akordio-proposamenak egitea Akziodunen Batzar Nagusiari, emaitzen aplikazioei eta akziodunen beste ordainketa-modalitate batzuei dagokienez; halaber, hala badagokio, dibidenduen konturako kopuruak ordaintzeko erabakia hartzea.
 - b) Taldeko edozein sozietate garrantzitsuri eragiten dien aktibo eta pasiboen bateratze-, zatiketa-, kontzentrazio- edo lagapen-eragiketa globalen berri jasotzea.
 - c) Inbertsioak, desinbertsioak eta mota guztietako eragiketak onartzea, kopuru handiak izateagatik edo ezaugarri bereziak izateagatik izaera estrategikoa edo zerga-arrisku berezia dutenak, hori onartzea Akziodunen Batzar Nagusiari dagokionean izan ezik.
 - d) Partaidetzak sortzea edo eskuratzea helburu bereziak dituzten entitateetan edo zerga-paradisutzat hartzen diren herrialde edo lurraldeetan helbideratuetan, eta antzeko beste transakzio edo eragiketak egitea, haien konplexutasunagatik taldearen gardentasunari kalte egin diezaioketenak.
 - e) Eragiketa lotuak onartzea, aurretiaz Ikuskaritza eta Kontrol Batzordearen txostena izanik, eta unean-unean horri dagokionez aplikagarria den legedian definitzen diren moduan.
 - f) Sozietateak igortzen dituen baloreei buruz proposatzen den erosketak publikoko eskaintza guztiei buruzko iritzia ematea.
 - g) Sozietatearen autozorro-politika aurrera eramatea, Akziodunen Batzar Nagusiak emandako baimenari jarraikiz.
 - h) Sozietatearen Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostena eta jasangarritasunaren urteko txostena edo memoria egitea, baita kontseilarien ordainsari-politikei buruzko urteko txostena ere.
 - i) Administrazio Kontseiluko lehendakariaren, kontseilari delegatuaren, edo, bestela, Administrazio Kontseiluaren zuzendari nagusiaren edo batzordeen proposamenak ebatzea.
 - j) Haien eskumena izanik, Administrazio Kontseiluak berak Sozietatearentzat interesgarria dela irizten dion edo Araudiak osoko bilkuraren organoarentzat jasotzen duen beste edozein gairi buruzko iritzia ematea.
6. Urtero, arlo hauek ebaluatuko ditu Administrazio Kontseiluak, eta, horretarako, kasuan-kasuan egoki irizten dion kanpo- eta barne-baliabideak erabiliko ditu:
- a) Funtzionamendua eta lanaren kalitatea.

- b) Nola betetzen dituzten beren funtzioak Administrazio Kontseiluko lehendakariak, eta, hala badagokio, Sozietatearen lehen exekutiboak (Araudi honen 2. artikuluan definitzen den moduan), abiapuntutzat hartuz Izendapen eta Ordainketa Batzordeak igortzen dion txostena.
 - c) Batzordeen funtzionamendua, haiek igortzen dizkieten txostenak aztertuta. Horretarako, batzordeetako lehendakariekin antolatu eta koordinatuko du Administrazio Kontseiluko lehendakariak ebaluazio-prozesu hori.
7. Artikulu honetan jasotzen diren gaiei dagokienez, hala egin behar denean, Taldeko gainerako sozietateen administrazio-organoeekin jardungo du Administrazio Kontseiluak, haien guztien baterako interesaren alde

5. artikulua. Interes soziala

1. Administrazio Kontseiluak, bere funtzioak betetzean, beti izango du helburu Sozietatearen interes soziala, halakotzat harturik sozietatearen xedea ustiatzera bideratutako sozietate anonimo independente bateko akziodun guztien baterako interesa, betiere indarrean den legedian xedatutakoari jarraikiz.

Administrazio Kontseiluak, dagozkion funtzioak garatzean, interes soziala izango du helburu, eta helburu-batasunari eta irizpide-independentziari jarraikiz jardungo du. Gainera, kontuan izango ditu enpresa-jarduera oro garatzean biltzen diren interes legitimo publiko edo pribatuak, eta, bereziki, interes-taldeen artekoak, Sozietateak jarduten duen komunitate eta lurraldeenak eta Sozietatearen beraren langileenak. Testuinguru horretan, kontuan izan beharko da Sozietatearen balio ekonomikoa ahalik eta maila handienera eramateko aukera, eta epe luzerako asmo ona, akziodun guztien baterako interes moduan. Beraz, horiek izan behar dute, uneoro, Administrazio Kontseiluaren, haren organo delegatuen eta barne-eremuko batzordeen nahiz hura osatzen duten kideen irizpideak.

II. KAPITULUA. OSAERA

6. artikulua. Kontseilari-kopurua

1. Administrazio Kontseiluak, Sozietatearen Estatutuen arabera, gutxienez bost (5) eta gehienez ere hamabost (15) kontseilari izango ditu. Akziodunen Batzar Nagusiak izendatuko edo berretsiko ditu, indarrean diren lege- eta estatutu-aginduei jarraikiz.
2. Akziodunen Batzar Nagusiari dagokio zenbat kontseilari izango diren zehaztea, berariazko akordioaren bidez, edo zeharka, plaza hutsak hornituz edo kontseilari berriak izendatuz, betiere aurreko atalean zehaztutako gehienezko muga errespetatuz.

7. artikulua. Kontseilari-motak

1. Administrazio Kontseiluak, Akziodunen Batzar Nagusiari proposamenak egiteko duen eskumenari eta hutsik dauden plazak hornitzeko kooptaziora jotzeko duen eskubideari jarraikiz, ahalegina egin behar du kanpo-kontseilariak eta kontseilari ez-exekutiboak ez daitezen izan kontseilari exekutiboak baino gehiago organoak osatzeko orduan. Ahalegindu behar du, halaber, kontseilari independenteak gutxienez Administrazio Kontseiluko kideen erdiak (1/2) izan daitezen. Horretaz gain, gutxienerako kopurua osatu behar dute kontseilari exekutiboek, kontuan izanda sozietate-taldearen konplexutasuna eta kontseilari exekutiboek Sozietatearen kapitalean duten parte-hartzea.
2. Indarrean den araudian xedatzen dira kontseilari-moten definizioak.

3. Kontseilua ahaleginduko da islatzen, kanpo-kontseilarien artean, kontseilari dominikalen kopuruaren eta kontseilari independenteen kopuruaren arteko harremanak isla dezala kontseilari dominikalek ordezkaturako Sozietatearen kapitalaren eta gainerako kapitalaren artean dagoen proportzioa.
4. Kontseiluak saihestu egingo du akziodunen artean edozein diskriminazio izatea Administrazio Kontseilura sartzeko kontseilari dominikalen bidez.
5. Kontseiluak kontseilari bakoitzaren izaera azaldu behar dio haren izendapena egin edo berretsi behar duen Akziodunen Batzar Nagusiari, eta urtero baieztatu da izendapena, edo, hala dagokionean, berrikusi, Korporazioaren Gobernuaren Urteko Txostenean, Izendapen eta Ordainketa Batzordeak egiaztatu ondoren. Kanpo-kontseilariaren bat ezin bada hartu ez kontseilari dominikaltzat ez independentetzat, egoera horren eta erlazioen (Sozietatearekin edo haren zuzendariekin, nahiz akziodunekin) berri emango du Sozietateak.

III. KAPITULUA. KONTSEILARIEN IZENDAPENA ETA KARGU-UZTEA

8. artikulua. Izendapena

1. Akziodunen Batzar Nagusiak izendatuko ditu kontseilariak, Legeak eta Sozietatearen Estatutuek jasotzen dituzten aurreikuspenak kontuan izanik. Kontseilariak pertsona ohoragarri eta egokien artean aukeratu dira, gaitasun, konpetentzia, esperientzia, prestakuntza, heziketa, denbora eta funtzioekiko konpromiso aitortua dutenen artean.
Kontseilaria pertsona juridikoa denean, aurreko atalean zehaztutako baldintzak bete behar ditu kontseilari karguari dagokion funtzioak egiteko ordezkatzeko duen pertsona fisikoak.
2. Administrazio Kontseiluak Akziodunen Batzar Nagusiari igortzen dizkionean kontseilariak izendatzeko eta berrautatzeko proposamenak, honako hauek izan behar ditu aurretiaz, aplikagarri zaion arautegian, Sozietatearen Estatutuetan eta Araudian jasotako edukiak betez: (a) Izendapen eta Ordainketa Batzordearen proposamena, kontseilari independenteen kasuan; edo (b) Izendapen eta Ordainketa Batzordearen txostena, gainerako kontseilarien kasuan; berriaz baloratu behar dira hautagaien ohoragarritasuna, egokitasuna, kaudimena, gaitasuna, esperientzia, kualifikazioa, prestakuntza, denbora eta funtzioekiko konpromisoa.
3. Behar den laguntza emango da kontseilari berriek azkar eta behar beste ezagut ditzaten Sozietatea eta taldea. Horretaz gain, egoerak hala gomendatzen duenean, kontseilarien ezagutzak eguneratzeko programak zehaztu ahal izango ditu Sozietateak.

9. artikulua. Bateriaezintasunak

Sozietateen Estatutuan aurreikusitakoaz gainera, ezingo dira kontseilari izendatu, ezta, hala dagokionean, pertsona juridikoa den kontseilariaren ordezkari pertsona fisiko ere:

- (i) Nazioko eta atzerriko sozietateak, telekomunikazioen sektorekoak, edo beste sektore batzuetakoak, Sozietatearen lehiakide direnak (“Sozietatearen Lehiakideak”), eta haien akziodunak, administratzaileak edo goi-zuzendariak, eta, Sozietatearen akziodun izateagatik, Sozietate Lehiakideek proposatuak.
- (ii) Balizko izendapenaren aurreko bi (2) urteetan administrazio publikoko goi-kargudunak izan badira eta horrekin bateraezina bada sozietate pribatu bateko kontseilari-lanak egitea, estatuko edo autonomia-erkidegoko legediaren arabera.

- (iii) Izaera orokorreko xedapenetan jasotzen den beste edozein bateraezintasun- edo debeku-kasutan dauden pertsona fisiko edo juridikoak, Sozietatearen edo taldearen kontrako interesak dituzten edozein formatakoak barne.

10. artikulua. Karguaren iraupena

1. Lau (4) urtez beteko dute kargua kontseilariak, Akziodunen Batzar Nagusiak kentzea adostu edo karguari uko egiten dietenean izan ezik.
2. Berrirori hautatu ahal izango dira kontseilariak lau (4) urteko epe baterako edo zenbaitetarako.

11. artikulua. Berrautatzea

1. Administrazio Kontseiluak erabakitzen duenean Akziodunen Batzar Nagusiari aurkeztea kontseilariak berrautatzeko proposamenak, ezinbestean izan behar du prozesuak Izendapen edo Ordainketa Batzordeak prestatutako proposamen bat (kontseilari independenteen kasuan) edo txosten bat (gainerako kontseilarien kasuan). Dokumentuan, berrautatzeko proposatzen diren kontseilarien aurreko agintaldiko lanaren kalitatea eta karguarekiko ardura ebaluatuko dira, bai eta, berariaz, haien ohoragarritasuna, egokitasuna, kaudimena, gaitasuna, denbora eta funtzioekiko konpromisoa ere.
2. Ondorio horietarako, batzordeak berak ebaluatuko ditu Izendapen eta Ordainketa Batzordeko kontseilariak, eta, horretarako, egoki irizitako barne- eta kanpo-baliabideak erabiliko ditu. Berrautatzeko proposatu diren kontseilariak utzi egin behar dute bilera gogoetek eta bozketek berei eragiten dietenean.
3. Akziodunen Batzar Nagusiaren erabakiz Administrazio Kontseiluko kideetat berrautatzen den lehendakariak, eta Administrazio Kontseiluko idazkariak eta idazkariordeak (kontseilari direnean) beren karguetan jarraituko dute Administrazio Kontseiluan, izendapen berririk egiteko beharrik izan gabe. Horrek ez dio kalte egingo Administrazio Kontseiluak berak kargu horiek atzera botatzeko duen eskumenari.

12. artikulua. Dimititzea, kargutik kentzea eta kargugabetzea

1. Kargugabetu egingo dira kontseilariak izendapenak zuen indarraldia igarotakoan eta Akziodunen Batzar Nagusiak hala erabakitzen duenean, esleituak dituen eskudantziak baliatuz.
2. Kargua Administrazio Kontseiluaren esku utzi eta dagokion dimisioa aurkeztu behar dute kontseilariak kasu hauetan:
 - (i) Izaera orokorreko xedapenetan, Sozietatearen Estatutuetan edo Araudi honetan jasotako bateraezintasun- edo debeku-egoera batean daudenean.
 - (ii) Kontseilariari egotz dakizkiokkeen gertaera edo portaerengatik, kalte handia egin zaionean Sozietatearen ondasun sozialari edo ospari, edo Sozietatearen zigor-erantzukizunaren arriskua sor dezaketenean.
 - (iii) Sozietateko kide izateko beharrezkoak diren ohoragarritasuna, egokitasuna, kaudimena, gaitasuna, denbora eta funtzioekiko konpromisoa galtzean.
 - (iv) Administrazio Kontseiluan jarraitzeak arriskuan jar dezakeenean funtzioak zintzo eta arduraz betetzea, interes sozialari jarraikiz, edozein arrazoiengatik eta zuzenean, zeharka edo harekin erlazionatutako pertsonen bidez (Araudi honetan termino horri ematen zaion definizioari jarraikiz).
 - (v) Izendatzeko izan ziren arrazoiak desagertzen direnean, eta, zehazki, kontseilari dominikalen kasuan, haren izendapena proposatu, eskatu edo erabaki zuen

akziodunak, edo akziodunek, partaidetza osorik edo zatika saldu edo besterentzean, eta hala, izendapena arrazoitzeko garrantzitsua edo behar bestekoa den baldintza galtzean.

3. Aurreko 2. atalean adierazitako kasuetatik edozeinetan, kargua uzteko eskatuko dio Administrazio Kontseiluak kontseilariari, eta, hala badagokio, kargutik kentzea proposatuko dio Akziodunen Batzar Nagusiari.
4. Era berean, kontseilariak Administrazio Kontseiluaren eskuetan utzi behar dute beren kargua 70 urte betetzean. Adin hori betetzen duen ekitaldiaren urteko kontuak onartzeko egiten den Akziodunen Batzar Nagusia egin ondorengo Administrazio Kontseiluaren lehen saioan uko egin behar dio karguari.
5. Kontseilariaren batek kargua uzten badu agintaldia amaitu aurretik, dimititu egin duelako edo beste edozein arrazoiengatik, gutun batean azaldu behar ditu arrazoiak, eta Kontseiluko kide guztiei bidali. Kargua uzteko arrazoiaren berri emango da Korporazioaren Gobernuaren Urteko Txostenean.
6. Kontseilari independente batek Estatutuetan zehazten den epea amaitu aurretik kargua utz dezan proposatu ahal izango du Administrazio Kontseiluak, bakar-bakarrik, beraren iritziz horretarako arrazoi justifikatuak daudenean. Zehazki, arrazoi justifikatuak daudela ulertuko da kontseilariak ez baditu bete bere karguari dagozkion zereginak, edo kargu hori betetzea eragozten duen egoeraren bat sortu bazaio. Egoera horiek indarrean den legediak kontseilari independentearentzat jasotako definizioan deskribatzen dira, edo, bestela, Sozietateari unean-unean aplikagarri zaion gobernu korporatibo onaren gomendioetan.

13. artikulua. Abstentzio-betebeharra

Akziodunen Batzar Nagusiak kontseilari bati buruzko izendapen-, berrautatze-, kentze- edo ohartarazpen-proposamen bat aztertu behar duenean, saioa utziko du kontseilariak, akordioak hartzeko eztabaidak eta bozketak egiten direnean.

IV. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN EGITURA

14 artikulua. Administrazio Kontseiluko lehendakaria

1. Kontseilariaren artetik aukeratuko da Administrazio Kontseiluko lehendakaria, Izendapen eta Ordainketa Batzordearen txostena izanik, eta Sozietateko eta sozietatea osatzen duten organo guztietako lehendakari izango da. Haren egitekoa da Sozietatearen eta haren organo guztien erabakiak betearaztea.
2. Unean-unean aplikagarri den legedian eta Sozietatearen gobernu korporatiboaren arauetan jasotzen diren eskumenez gainera, lan hauek dagozkio Administrazio Kontseiluko lehendakariari:
 - (i) Administrazio Kontseiluaren eta, hala badagokio, Batzorde Exekutiboaren bilera-deialdiak egitea eta bileren buru izatea. Bileren gai-ordena zehaztea, eta eztabaidak eta gogoetak bideratzea.
 - (ii) Akziodunen Batzar Nagusiaren buru izatea, eta han izaten diren eztabaidak eta gogoetak bideratzea.
 - (iii) Administrazio Kontseilura eramatea Sozietateak ongi funtzionatzeko egokiak iruditzen zaizkion proposamenak, eta, bereziki, Administrazio Kontseiluaren beraren eta gainerako sozietate-organoen funtzionamenduari dagozkionak.

- (iv) Administrazio Kontseiluaren kontsultarako batzordeen lana sustatzea, eta dagozkien funtzioak eta ardurak eraginkortasunez eta behar besteko koordinazioz egiten dituztela zaintzea. Antolaketa egokia izango du ondorio horietarako.
- (v) Zaintzea kontseilariak aurretiaz jasotzen dutela gai-ordenari buruz erabakitzeke behar beste informazio.
- (vi) Administrazio Kontseiluak landu beharreko gaien datak eta programa prestatu eta aurkeztea, eta kontseilariaren eztabaida eta parte-hartze aktiboa sustatzea saioetan, jarrera askatasunez hartzen dutela zainduz.
- (vii) Kontseiluaren aldiaren aldiko ebaluazioa antolatzea eta koordinatzea, eta orobat, hala badagokio, Sozietatearen lehen exekutiboarena (Araudi honen 2. artikuluan definitzen denari jarraikiz). Kontseiluaren zuzendaritzaren eta haren funtzionamendu eraginkorraren erantzulea den heinean, bermatzea behar beste denbora hartzen dela gai estrategikoak eztabaidatzeko.
- (viii) Kontseilari bakoitzaren ezagutzak eguneratzeko programak adostea eta berrikustea, egoerak hori egitea gomendatzen duenean.

16. artikulua. Administrazio Kontseiluko lehendakariordea

Administrazio Kontseiluak, aurrez txostena eginik Izendapen eta Ordainketa Batzordeak, lehendakariorde bat hautatu ahal izango du kideen artean. Lehendakariordeak ordeztuko du Administrazio Kontseiluko lehendakaria, behin-behinean, lehendakari-kargua hutsik dagoenean, bertan ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo kargua betetzeko ezintasunen bat duenean.

17. artikulua. Idazkaria eta idazkariordea

1. Administrazio Kontseiluak, Izendapen eta Ordainketa Batzordearen txostena izanik, idazkaria aukeratuko du, kontseilaria ez dena, eta, hala badagokio, idazkariordea, hau ere kontseilaria ez dena. Idazkariordeak idazkaria ordeztuko du kargu hutsik dagoenean, bertan ez dagoenean, gaixorik dagoenean, edo kargua betetzeko ezintasunen bat duenean. Prozedura berari jarraituko zaio idazkaria kargutik kentzea adosteko, edo, hala dagokionean, idazkariordea kentzeko.
2. Idazkaria eta idazkariordea ez daudenean, bileran dauden kontseilariaren artetik izendatuko du Administrazio Kontseiluak kargu horretan arituko dena.
3. Indarrean den legediak zehazten dituen funtzioez gainera, lehendakariari lagunduko dio Administrazio Kontseiluaren idazkariak hari dagozkion lanetan, eta Kontseiluaren funtzionamendu ona sustatu behar du. Zeregin hauek izango ditu, zehazki:
 - (i) Dokumentazio soziala kontserbatzea eta zaintzea; behar bezala jasotzea aktibitatearen saioen garapena, eta administrazio-organoen akordioak eta erabakiak ziurtatzea. Halaber, kontseilariaren Sozietatearen martxari buruz adierazi dituzten kezkak, Administrazio Kontseiluak ebatzi ez dituenak, jasoko ditu Administrazio Kontseiluaren bilera-aktetan. Halaber, proposamenen bati edo egin den eskaeraren bati buruz berak edo kontseilariak adierazitako kezkak jasoko ditu.
 - (ii) Administrazio-ko kide anitzeko organoen jarduerak legezotasun formal eta materiala betetzen dutela eta aplikagarri zaizkien arauen arabera jokatzen dutela zaintzea.
 - (iii) Gobernu korporatiboari dagozkion nazioarteko eta nazioarteko gaietako ekimen berriei buruzko aholkua ematea Administrazio Kontseiluari.

- (iv) Sozietateak kontseilariekin dituen harremanak bideratzea, oro har, Administrazio Kontseiluaren funtzionamenduari dagokionez, betiere lehendakariaren argibideei jarraikiz.
 - (v) Behar dituzten aholkularitza eta informazioa ematea kontseilariei, eta Administrazio Kontseiluko lehendakariaren zuzendaritzapean, gainbegiratzea Sozietateak emandako informazioa, Administrazio Kontseiluan erabakiak hartzekoa, aurretiaz, behar beste denboraz eta formatu egokian dagoela kontseilarien esku.
 - (vi) Administrazio Kontseiluak ezagutu behar dituen gaien informazioari eta dokumentazioari dagokienez, kontseilariek egiten dituzten eskaerak bideratzea.
 - (vii) Sozietatearen webgune korporatiboan jarri behar den informazioa izatea.
 - (viii) Idazkari-lanak egitea Akziodunen Batzar Nagusian.
 - (ix) Administrazio Kontseiluko lehendakariak gainbegiratuta, behar duten babesa ematea Administrazio Kontseiluaren batzordeei, behar beste koordinatuta lan egin eta jarduera betetzeko baliabide-egitura egokia izan dezaten.
4. Idazkariak bereziki zainduko ditu Administrazio Kontseiluaren jarduerak (i) Legeek eta Araudiek diotena bete dezaten, baita organismo arautzaileek onartuak ere; (ii) Sozietatearen Estatutuak, Akziodunen Batzar Nagusiaren Araudia, Administrazio Kontseilu Araudia eta Balore Merkatuen Portaeraren Barne Araudia bete ditzaten, eta (iii) Sozietatearen gobernu onari buruzko gomendioak kontuan izan ditzaten.
 5. Bere funtzioak betetzeko, idazkari ez den Administrazio Kontseiluaren batzordeen bilera-aktak eskuratzeko aukera izan behar du idazkariak.

18. artikulua. Organo delegatuak eta kontsultarako organoak

1. Edozein pertsonari eman dakizkiokeen ahalordetzen kalterik gabe, Batzorde Exekutiboa osatu ahal izango du Administrazio Kontseiluak. Hiru (3) kide izango ditu gutxienez, eta sei (6) gehienez. Horretaz gain, lehen exekutibo bat (Araudi honetako 2. artikuluan definitzen denari jarraikiz) izendatu ahal izango du, Kontseiluko lehendakariak hala proposatzen duenean, eta haien esku utzi ahal izango ditu, osorik edo hein batean, eta aldi baterako edo modu iraunkorrean, Legeak eskuordeezintzat jasotzen ez dituen eskumenak. Kargu horiek beteko dituzten Administrazio Kontseiluko kideen eskuordetzeak eta izendapenak, baliozkoa izateko, Izendapen eta Ordainketa Batzordearen txostena izan behar da, eta aldeko botoa eman behar dute Administrazio Kontseiluko kideen lau bostenek (4/5). Horrek ez du ondoriorik izango Merkataritza Erregistroan jasotzen ez den arte.
2. Sozietatea ahaleginduko da, ahal den heinean, Administrazio Kontseiluaren antzekoa izan dadin Batzorde Exekutiboaren osaeran dauden kontseilari-kategorien partaidetza-egitura. Administrazio Kontseiluko idazkariak beteko du Batzorde Exekutiboko idazkari-kargua, edo, bestela, Administrazio Kontseiluko idazkariordeak.
3. Administrazio Kontseiluari jakinaraziko dio Batzorde Exekutiboko lehendakariak zer gai landu eta zer akordio onartu diren saioetan. Haien akta jaso behar da, eta kopia bat bidali Administrazio Kontseiluko kide guztiei.
4. Administrazio Kontseiluko lehendakariak funtzio exekutiboak ere betetzen baditu, Administrazio Kontseiluak, kontseilari betearazleek abstentziora jota, kontseilari koordinatzaile bat izendatu behar du, ezinbestean, kontseilari independenteen artean, eta eskumen hauek izango ditu bereziki:

- (i) Administrazio Kontseiluko lehendakariari eskatzea organo horren deialdia egitea egoki irizten dionean.
 - (ii) Gaiak Administrazio Kontseiluaren bileren gai-ordenan sartzeko eskatzea.
 - (iii) Kanpo-kontseilarien iritziak koordinatzea, biltzea eta jakinaraztea.
 - (iv) Administrazio Kontseiluko lehendakariaren aldi-aldi ebaluazioa bideratzea.
5. Era berean, Ikuskaritza eta Kontrol Batzordea eta Izendapen eta Ordainketa Batzordea osatuko dira, Sozietatearen Estatutuen 64. eta 65. artikuluetan zehazten diren eta haien funtzionamenduaren barne-araudietan garatzen diren eskumenei buruzko informazioa emateko, ikuskaritza-lanak egiteko, aholkuak emateko eta proposamenak egiteko.
6. Horretaz gain, beste batzorde batzuk osatu ahal izango ditu Kontseiluak, eta kontsultarako eta aholkularitzarako funtzioak esleitu, salbuespenez erabakitzeko eskumenen bat esleitzearen kalterik gabe. Administrazio Kontseiluak gehiengo sinplez izendatuko ditu komite eta batzorde horietako lehendakaria, idazkaria eta gainerako kideak.

V. KAPITULUA. FUNTZIONAMENDUA

19. artikulua. Bileren forma eta epea

1. Dagozkion funtzioak ongi garatzeko egoki den maiztasunez bilduko da Administrazio Kontseilua, eta gutxienez sei (6) aldiz urtean. Saio bat egin beharko da gutxienez hiruhileko natural bakoitzean. Kontseilari bakoitzak beste puntu batzuk proposatu ahal izango ditu hasiera batean gai-ordenan jasotzen ez direnean. Eskaera hori saioa egiteko aurreikusi den data baino hiru (3) egun baldiodun lehenago aurkeztu behar da.
2. Era berean, lehendakariak hala eskatuta, Sozietateak ongi funtzionatzeko egoki irizten den adina aldiz bilduko da Administrazio Kontseilua, bai eta hurrengo 5 atalean aurreikusten den baldintzetan ere.
3. Gutxienez kontseiluaren herena osatzen duten kontseilariak eskatuta, helbide soziala duen udalerrian egin ahal izango da deialdia, gai-ordena zehaztuta, baldin eta, lehendakariari hala eskatuta, hark ez badu deialdia hilabeteko epean egin eta horretarako arrazoi justifikaturik ez badago.
4. Fax, posta elektronikoa edo gutun bidez jakinaraziko zaio deialdia kontseilari bakoitzari, gutxienez bilera egiteko jarritako data baino hamar (10) egun baldiodun lehenago.
5. Lehendakariaren iritziz hala eskatzen duten presazko arrazoiak daudenean, nahikoa izango da deialdia hiru (3) egun baldiodun lehenago egitea, eta, kasu horretan, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da deialdia egiteko moduari dagokionez.
6. Horretaz gain, gutxienez bi (2) kontseilarik idatziz eskatzean, eta gai-ordena jasotzean, Administrazio Kontseiluaren deialdia egin behar du lehendakariak. Lehendakariak ez badu Administrazio Kontseiluaren deialdia egiten kontseilariak hala eskatuta, lehendakariordeak edo bat baino gehiago badira lehendakariordeek berariazko eskumena izango dute Administrazio Kontseiluaren bilera-deialdia egiteko. Bilera-deialdia, bilera egin ahal izateko, deialdiaren eskaera jaso eta hurrengo hamar (10) egun baldiodunetan egin behar da. Ez da deialdirik egin behar kontseilari guztiak bilduta badaude eta aho batez erabakitzen badute bilera egitea.

20. artikulua. Administrazio Kontseiluaren bilerak egitea. Erabakiak idatziz hartzea, saiorik egin gabe.

1. Oro har, egoitza sozialean egingo dira Administrazio Kontseiluaren bilerak, eta fisikoki bertaratuko dira kontseilariak edo haien ordezkariak.
2. Aurreko horren kalterik gabe, Administrazio Kontseiluaren bilerak egin ahal izango dira bertaratzen direnak ezagutzeko eta identifikatzeko aukera ematen duten sistemaren baten bidez lotutako zenbait lekutan, komunikazioa etengabea izanik dauden lekuan daudela, eta denbora errealean parte hartzeko eta botoa emateko aukera izanik. Bilera-lekuetako edozeinetan dauden parte-hartzaileak bilera bakar horretara agertutzat hartuko dira Administrazio Kontseiluaren bilerari dagozkion ondorio guztietarako. Ulertuko da saioa kontseilari gehien dauden lekuan egin dela, eta, berdinketarik bada, Administrazio Kontseiluko lehendakaria dagoen lekuan, edo, hura falta bada, bileraren buru dena dagoen lekuan.
3. Idatziz eta saiorik egin gabe egin ahal izango ditu bozketak Administrazio Kontseiluak, betiere horren aurka dagoen kontseilariarik ez bada. Kasu horretan, botoak eta aktan jasotzea nahi duten gogoetak igorri behar dizkiote kontseilariak Administrazio Kontseiluaren idazkariari, edo funtzio horiek bere gain hartzen dituenari. Haiek jasotzea ahalbidetzen duten edozein bitarteko erabili ahal izango da. Akordioak prozedura horren bidez hartzen direnean, aktan jasoko da horren berri. Akta bat etorriko da indarrean den legedian aurreikusitakoarekin.

21. artikulua. Bertaratuen quoruma eta boto-gehiengoa oro har

Administrazio Kontseiluaren osaera baliozkoa izateko, beharrezkoa da bileran izatea kideen erdiak (1/2) gehi bat (1), kideak berak izan edo haien ordezkariak.

Administrazio Kontseiluaren Erabaki Garrantzitsuak (jarraian definitzen diren moduan) ez diren gaiei buruko akordioak bertaratutako kontseilarien edo ordezkatuaren gehiengo osoz onartuko dira, eta kalitateko boto erabakigarria izango du lehendakariak, berdinketarik bada.

22. artikulua. Bertaratuen quoruma eta boto-gehiengoa Administrazio Kontseiluaren Erabaki Garrantzitsuetarako

Administrazio Kontseiluaren osaera baliozkoa izateko, Administrazio Kontseiluaren Erabaki Garrantzitsuei dagokienez, kideen lau bostenak (4/5) joan behar du bilerara, kideek beraiek edo ordezkariak.

Administrazio Kontseiluaren Erabaki Garrantzitsuak (jarraian definitzen diren moduan) diren gaiei buruko akordioak bertaratutako kontseilarien edo ordezkatuaren lau bostenez (4/5) onartuko dira.

23. artikulua. Administrazio Kontseiluaren Erabaki Garrantzitsuak

Aurreko artikulua onorioetarako, Administrazio Kontseiluaren Erabaki Garrantzitsutzat joko dira honako hauek, eta ezingo dira kontseilari eta/edo batzorde delegatu batean eskuetan utzi, eta Administrazio Kontseiluak hartu beharko du erabakia:

1. Sozietateak edozein unetan Euskal Autonomia Erkidegoan duen edozein langune ixtea, ez bada itxiera hori behar bezala arrazoitu dela dokumentu bidez, Sozietatearen enpresa-jarduera garatzeko eraginkortasun-arrazoiak tarteko.
2. Akziodunen Batzar Nagusiari proposatzea Sozietateak Euskal Autonomia Erkidegoan edo beste edozein autonomia-erkidegotan duen administrazio eta zuzendaritza eraginkorra ez mantentzea helburu duen edo eragin hori duen edozein erabaki. Ondorio horietarako, 37.3 artikulua 2. atalean jasotzen diren azalpenak aplikatuko dira.
3. Akziodunen Batzar Nagusiari proposatzea "Euskaltel" markaren aldaketa Sozietatearen jarduerak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan.

4. Sozietatearen botoari buruz erabakitzea, bazkide edo akziodun (eta administrazio-organoetako ordezkari) moduan, edozein sozietate filial edo partaidetutan, atal honi jarraikiz Administrazio Kontseiluaren Erabaki Garrantzitsutzat hartzen den edozein akordiorik dagokionez.
5. Akziodunen Batzar Nagusiak aurreko gaiei dagokionez egindako eskuordetzeak betetzeko akordioak.

24. artikulua. Ordezkaritza eta botoa ematea

Ordezkaritza eta botoa beste edozein kontseilariri eman ahal izango dio kontseilari bakoitzak, eta lehendakariari zuzendutako gutunaren bidez jakinarazi behar du. Idatziz aurkeztuko den ordezkariak horrek berezia izan behar du saio bakoitzerako.

25. artikulua. Saioen garapena

1. Ahal duten guztia egingo dute kontseilariak Administrazio Kontseiluaren saioetara joateko. Joan ezin direnean, ordezkariak beste kontseilari bati ematen ahaleginduko dira, egoki diren jarraibideekin batera. Ezingo dute ordezkariak beste norbaiten esku utzi interes-gatazkaren bat eragiten dien gaian. Administrazio Kontseiluaren dagokion bilerarako emango da ordezkariak izaera bereziz, eta bilera-deialdien 19. artikuluan jasotako edozein bitarteko erabiliko da jakinarazpena egiteko.
2. Administrazio Kontseiluko lehendakariak, haren funtzionamendu egokiaren arduradun den heinean, kontseilarien eztabaida eta parte-hartze aktiboa sustatu eta antolatuko ditu bileretan, eta erabakiak askatasunez hartzea eta iritzia ematea babestuko du.
3. Horretaz gain, eta egoerak hala justifikatzen duenean, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu Administrazio Kontseiluko lehendakariak Administrazio Kontseiluaren saioetako gogoeten eta akordioen konfidentzialtasuna bermatzeko.
4. Kontseilarien informazioa hobetu dezaketen pertsona guztiak gonbidatu ahal izango ditu lehendakariak Administrazio Kontseilura.
5. Berdinketarik bada, kalitateko botoa izango du Administrazio Kontseiluko lehendakariak.

26. artikulua. Urteko ebaluazioa

1. Urtero, ebaluazio hauek egingo ditu Administrazio Kontseiluak: (i) funtzionamendua eta lanaren kalitatea; (ii) Administrazio Kontseiluko lehendakariaren funtzioen jardura, eta, halakorik bada, kontseilari delegatuarena, Izendapen eta Ordainketa Batzordeak egiten duen txostenetik abiatuta; (iii) Batzordeen funtzionamendua, haien txostenetatik abiatuta, eta (iv) kontseilari bakoitzaren jardura eta ekarpena, arreta berezia jarritz Kontseiluaren batzordeen arduradunengan. Horretarako, ebaluazio-prozesu hori batzordeetako lehendakariarekin antolatu eta koordinatuko du Administrazio Kontseiluko lehendakariak.
Saioaren aktan jasoko da urteko ebaluazioaren emaitza, edo eranskin moduan gehitu.
2. Administrazio Kontseiluko lehendakariak funtzio exekutiboak baditu, eskumena bereziki jaso duen kontseilari koordinatzaileak bideratuko du haren ebaluazioa, 18.4 artikuluan xedatzen denari jarraikiz.
3. Urteko ebaluazioan lotutako emaitzetan oinarrituz, hauteman diren akatsak zuzentzeko ekintza-plana proposatuko du Administrazio Kontseiluak.

V. KAPITULUA ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO KIDEEEN ORDAINSARIA

27. artikulua. Kontseilarien ordainsaria

1. Sozietatearen Estatutuetan zehazten den ordainsaria jasotzeko eskubidea izango dute kontseilariak.
2. Sozietatearen Estatutuetan zehaztutako mugak betez, Administrazio Kontseilua ahaleginduko da kontseilarien ordainsariak arrazoizko proportzioa izan dezan Sozietatean duen garrantziarekin, unean uneko egoera ekonomikoarekin, neurri edo jarduera antzekoak dituzten konpainiek merkatua asetzeko dituzten estandarrekin eta Sozietatean duten ardurarekin. Zehazten den ordainsari-sistemaren helburua izan behar du Sozietatearen errentagarritasuna eta jasangarritasuna sustatzea epe luzera, eta arrisku handiegiak hartzea eta emaitza txarrak izatea saihesteko neurriak hartzea.
3. Horretaz gain, Administrazio Kontseiluak zainduko du kanpo-kontseilariari ematen zaien ordainsaria pizgarria izatea dagokien ardurarako, baina haien independentzia zalantzan jarri gabe.
5. Kontseilarien ordainsariari buruzko txostena egingo du urtero Administrazio Kontseiluak, aplikagarri den legedian zehaztutako terminoetan.

Akziodunen esku jarriko da txosten hori Batzar Nagusi Arruntaren deialdia egitean, eta kontsultarako bozketa egingo da, gai-ordenako puntu bereizi moduan.

VI. KAPITULUA. KONTSEILARIAREN INFORMAZIOA

28. artikulua. Informazio- eta ikuskapen-eskumenak

1. Kontseilariak, bere kargua betetzeko, eskumen zabalena dituen Sozietatearen edozein alderdiri buruzko informazioa biltzeko, lehenago egindako sozietate-eragiketen liburuak, erregistroak, dokumentuak eta gainerako edozein aurrekari aztertzeko, instalazioak ikusteko eta Sozietatearen goi-zuzendariarekin komunikatzeko.
2. Eskumen horiek betetzeko, Administrazio Kontseiluko idazkariaren bidez egingo da eskaera. Hark Administrazio Kontseiluko lehendakariari eta Sozietatearen mintzakide egokiari jakinaraziko dio.
3. Idazkariak adieraziko dio kontseilariari konfidentziala dela eskatzen eta jasotzen duen informazioa, eta haren betebeharra dela konfidentzialtasuna, Araudi honetan zehazten den moduan.

29. artikulua. Adituen laguntza

1. Funtzioak betetzeko laguntza izateko, kontseilariak eska dezake kontrata daitezela legezko aholkulariak, kontulariak, teknikariak, finantzariak, merkatariak edo beste edozein aditu, Sozietatearen kargura.
Bere kargua betetzeko nolabaiteko garrantzi eta konplexutasuna duten arazo jakinei buruzkoa izango da eskaria.
2. Administrazio Kontseiluaren idazkariaren bidez bideratuko da kontratazio-eskaera, eta hark Administrazio Kontseiluaren baimena eskatu ahal izango du. Eskaera ukatu egin daiteke horretarako arrazoiak daudenean, egoera hauetan barne:
 - (i) Beharrezkoa ez izatea agindutako funtzioak ongi betetzeko.
 - (ii) Arrazoizkoa ez izatea kostua, arazoaren garrantziaren eta Sozietatearen aktiboen eta diru-sarreraren arabera.

- (iii) Jaso nahi den laguntza teknikoa ongi eman ahal izatea Sozietatearen adituek eta teknikariek.
- (iv) Arriskutsua izatea adituari eman behar zaion informazioaren konfidentziasunerako.

VII. KAPITULUA. KONTSEILARIAREN BETEBEHARRAK

30. artikulua. Betebehar orokorrak

1. Dagozkion funtzioak betetzeko, enpresari ordenatu baten eta ordezkari leial baten arduraz jokatu du, karguaren izaera eta esleitu zaizkion funtzioak kontuan izanik. Haren jarduera fede onak eta interes sozialak bideratuko dute soilik, eta akziodunen multzoaren interesak ahalik eta hobekien defendatu eta babestuko ditu; izan ere, haiek ematen diote agindua, eta haiei eman behar dizkie kontuak.
2. Legeak ematen dizkien betebeharren kalterik gabe, betebehar hauek izango ditu, zehazki, kontseilariak:
 - (i) Administrazio Kontseiluko eta kideak diren batzordeetako bilerak behar bezala prestatzea, eta behar den moduan informatzea Sozietatearen jardunari eta bilera horietan landuko diren gaiei buruz.
 - (ii) Kidea den organoetako eta batzordeetako bileretara joatea eta aktiboki parte hartzea deliberazioetan, bere irizpideak erabakiak hartzen lagun dezan. Ezin bada joan deitua izan den bileretara, arrazoizko kausengatik, azalpenak eman behar dizkio ordezkariari.
 - (iii) Ikuspegi estrategikoaren berri ematea (neurri handiagoa, kontseilari independenteek), baita Sozietatearen negozioak garapen eta bilakaera egokia izateko kontzeptu, irizpide eta neurri berritzaileak ere.
 - (iv) Ardura pertsonalaren printzipioari jarraikiz betetzea funtzioak, irizpide- edo iritziasatasunez, eta hirugarrenen jarraibide eta loturekiko modu independentean.
 - (v) Administrazio Kontseiluak, hartako lehendakariak, edo hala badagokio, kontseilari delegatuak agintzen dion lan espezifikoa egitea, bere arduraren konpromisoan sartzen bada arrazoiz.
 - (vi) Sozietatearen kudeaketan ezagutu duen edozein irregulartasun ikertzea, eta horren berri ematea Administrazio Kontseiluari; edozein arrisku-egoera zaintzea.
 - (vii) Administrazio Kontseiluaren ezohiko bilerarako deia egitea proposatzea, edo gai berriak sartzea proposatzea egingo den lehen bilerako gai-ordenan, egoki irizten dien gaiei buruz hausnartzeko.
 - (viii) Legearen, Sozietatearen Estatutuen edo interes sozialaren aurkako akordioen aurka agertzea, eta aurkakotasun hori aktan jasotzea eskatzea interes sozialerako egokiena iruditzen zaionean. Sor daitekeen interes-gatazkak eragiten ez dien kontseilari independenteek eta gainerako kontseilariak modu berezian eta argi adierazi behar dute aurka daudela, Administrazio Kontseiluan ordezkariak ez dauden akziodunei kate egin diezaieketen erabakiak direnean.

Administrazio Kontseiluak erabaki garrantzitsuak hartzen baditu, edo behin eta berriro hartzen baditu, kontseilari batek haiei buruzko zalantza agertu ondoren, dagozkion ondorioak aterako ditu kontseilariak, eta, dimisioa aurkezteko erabaki hartuz gero, arrazoiak azaldu beharko ditu dimisioa emateko gutunean.

Hemen xedatzen dena Kontseiluko idazkariari ere aplikatuko zaio, kontseilari ez izanik ere.

2. Dena den, kontseilariak dagokien zeregina eraginkortasunez betetzeko behar beste denbora hartu eta behar besteko ahalegina egin behar dute, eta, beraz, gainerako betebeharrak profesionalen berri eman behar diote kontseilariak Izendapen eta Ordainketa Batzordeari, eskatzen den arduraren eraginik izan dezakeen ikusteko.

31. artikulua. Konfidentzialtasun-betebeharra

1. Kontseilariak isilpean gordeko ditu Administrazio Kontseiluaren eta kide den batzordeen gogoetak eta akordioak, eta, oro har, ez du jakinaraziko kargua betetzean jaso duen informaziorik, daturik, txostenik edo aurrekaririk, eta ez ditu erabiliko ez bere onerako, ez bera proposatu edo izendatu duen akziodunaren edo hirugarren baten onerako, aplikagarri den legean zehazten diren gardentasun- eta informazio-betebeharrei kalte egin gabe.
2. Aurreko atalean araututako betebeharrak ez du eragozten hirugarrenei informazio konfidentziala ematea kontseilariaren funtzioak betetzeko, edo Administrazio Kontseiluak edo dagokion batzordeak berariaz egindako delegazioari dagozkionak betetzeko, betiere behar bezala bermatzen bada informazioaren hartzailak horren berri ez emateko duen betebeharra. Kontseilariaren ardura izango da hori, Legeak zehazten dituen terminoetan.
3. Kontseilariaren konfidentzialtasun-betebeharra bere horretan mantenduko da kargua utzita ere.

32. artikulua. Ez lehiatzeko betebeharra

1. Kontseilariak ezin dute, ez beren kontura ez besteren kontura, Sozietatearentzat denbora horretan benetako lehia den jarduerarik egin, edo modu batean edo bestean Sozietatearen interesetik gatazka etengabean jartzen dituen jarduerarik.
2. Sozietatearekin ez lehiatzeko betebeharra kasu honetan bakarrik salbuets daiteke: ezin espero daitekeenean Sozietateari kalte egiterik, edo salbuespenetik lortzea espero den etekinak espero daitekeen kaltea berdintzen duenean. Berariazko erabaki baten bidez emango da salbuespena, Akziodunen Batzar Nagusitik bereizita.
3. Dena den, edozein akziodunek eskaera eginez gero, lehia-jarduerak egiten dituen kontseilariaren kargu-uzteari buruzko erabakia hartuko du Akziodunen Batzar Nagusiak, Sozietateari kalte egiteko arriskua nabarmen bihurtzen denean.

33. artikulua. Interes-gatazka

1. Interes-gatazkatzat hartuko dira Sozietatearen interesak, edo taldeko sozietateenak, eta kontseilariaren interes pertsonalak talka egiten dutenean zuzenean nahiz zeharka. Kontseilariaren interes pertsonala izango da gaiak hari eragiten dionean, edo harekin erlazionatutako pertsonaren bati, edo, kontseilari dominikalaren kasuan, haren izendapena proposatu edo onartu zuen akziodunari edo akziodunei, edo haiekin erlazio zuzena edo zeharkakoa duten pertsonen.
2. Araudi honen ondorioetarako, hauek dira:
 - (i) Pertsona fisikoa den kontseilariarekin erlazionatutako pertsonak:
 - a) Ezkontidea edo halako harremana duen pertsona.
 - b) Kontseilariaren edo haren ezkontidearen (edo halako harremana duen pertsonaren) gurasoak, seme-alabak eta anaia-arrebak.
 - c) Kontseilariaren gurasoen, seme-alaben eta anaia-arreben ezkontideak.

- d) Kontseilaria edo harekin erlazionatutako edozein pertsona (bere kabuz edo jarritako pertsonaren bidez) kide duten eta Merkataritza Kodearen 42. artikuluan jasotzen diren egoeretakoren batean dauden sozietateak edo erakundeak.
 - e) Kontseilaria edo harekin erlazionatutako edozein pertsona (bere kabuz edo jarritako pertsonaren bidez) kide duten eta Merkataritza Kodearen 42. artikuluan jasotzen diren egoeretakoren batean dauden sozietateak edo erakundeak.
 - f) Kontseilari dominikalen kasuan, gainera, izendapen hori proposatu zuten akziodunak.
- (ii) Pertsona juridikoa den kontseilariarekin erlazionatutako pertsonak.
- a) Pertsona juridikoa den kontseilariarekiko Merkataritza Kodearen 42. artikuluan definitzen den egoeraren batean dauden bazkideak.
 - b) Talde berekoak diren sozietateak, hori Merkataritza Kodearen 42. artikuluan definitzen den moduan, eta haren bazkideak.
 - c) Pertsona juridikoa den kontseilariaren ordezkari pertsona fisikoa , administratzaileak (zuzenbidezkoak edo izatezkoak), likidatzaileak eta eskudunak.
 - d) Pertsona juridikoa den kontseilariaren ordezkariari dagokionez, pertsona erlazionatutzat hartzen direnak, artikuluko honen 2.(i) atalean pertsona fisiko diren kontseilariatzat zehazten denari jarraikiz.
3. Araudi honen beste xedapen batzuetan jasotakoaren kalterik gabe, arau hauek izango dituzte interes-gatazkek:
- (i) Komunikazioa: Kontseilariak Administrazio Kontseiluari jakinarazi behar dio, Administrazio Kontseiluko lehendakariaren edo idazkariaren bidez, aurkitzen duen edozein interes-gatazka.
 - (ii) Abstentzioa: bilera utzi behar du kontseilariak interes-gatazka eragiten dioten gaiak eztabaidatzean eta bozkatzean, eta bertaratu diren kideen zenbaketatik kenduko da quorumaren eta gehiengoaren ondorioetarako.
 - (iii) Gardentasuna: gaia aztertzean kontseilariak aurkitu duten edozein interes-gatazkaren berri emango die akziodunei Sozietateak, eragindakoak horren berri eman dielako edo beste edozein bidetatik ezagutu dutelako.
4. Hala ere, interes-gatazka horrek kontseilariaren eta Sozietatearen edo Sozietatearen taldeen artean egiturazko gatazka iraunkorra sortzen badu, edo sor badezake, ulertuko da kontseilariak ez duela kargua betetzeko egokitasunik, edo galdu egin duela, Araudi honetan xedatutako ondorioetarako.

34. artikulua. Sozietatearen aktiboen erabilera

1. Kontseilariak ezin ditu Sozietatearen aktiboak erabili, Sozietatearen informazio konfidentziala barne, ezta Sozietatean duen kargua erabili ere ondare-abantaila lortzeko, non eta ez duen kalte-ordain egokia eman eta ez den zerbitzu estandarizatua.
2. Aparteko kasuetan, kalte-ordaina emateko betebeharra ken dakioke kontseilariari, baina zeharkako ordainsaritzat hartuko da ondare-abantaila hori, eta Administrazio Kontseiluak baimendu behar du.

35. artikulua. Informazio ez-publikoa

Balore merkatuen araudian zehaztutako jokabide-arauak beteko ditu kontseilariak, eta, zehazki, Sozietatearen Balore Merkatuko Jokabideari buruzko Barne Araudikoak, informazio pribilegiatuari eta informazio garrantzitsuari dagokienez.

36. artikulua. Negozio-aukerak

1. Kontseilariak ezingo du bere onurarako edo berarekin erlazionatutako pertsonen onurarako baliatu Sozietatearen negozio-aukera bat, non eta ez zaion inbertsioa edo eragiketa Sozietateari eskaini lehenago, eta sozietateak, kontseilariak erabaki horretan eraginik izan gabe, ustiatzeko aukerari uko egin, edo ez duen eragiketa baliatzeko aukera eman Administrazio Kontseiluak, Izendapen eta Ordainketa Batzordearen txostena izanik.
2. Aurreko atalaren ondorioetarako, negozio-aukeratzat hartzen da kontseilariaren karguarekin lotuta sortu edo aurkitu den inbertsioen bat edo merkataritza-eragiketaren bat egiteko edozein aukera, edo Sozietatearen bitartekoen eta informazioaren bidez egitekoa, edo hirugarren baten eskaintza egiaz Sozietatearentzat zela adierazten duten arrazoiak daudenean.
3. Horretaz gain, kontseilariak ezingo du Sozietatearen izena erabili, ezta Sozietatearen kontseilari dela adierazi ere eragiketak bere kontura egitean edo harekin erlazionatutako pertsonak egitean.

37. artikulua. Zeharkako eragiketak

Kontseilariak Sozietatearekin duen leialtasun-zeregina urratzen du baldin eta, aurretiaz jakinik, aurreko artikuluetan jaso diren baldintzen eta kontrolen mende jarri ez diren pertsona erlazionatuek eragiketak egitea onartzen badu edo ez badu horren berri ematen.

38. artikulua. Sozietatearen eta kontseilari eta akziodunen arteko transakzioak

1. Administrazio Kontseiluaren baimena behar da, eta aurretiaz Ikuskaritza eta Kontrol Batzordearen aldeko txostena, Sozietateak edo Sozietatearen taldeek edozein transakzio egiteko kontseilariarekin, esanguratsutat hartzen den partaidetzak dituzten akziodunekin (unean-unean aplikagarri den balore-merkatuko arauan aurreikusitakoari jarraikiz), edo erlazionatutako pertsonekin.
2. Administrazio Kontseiluak eta Ikuskaritza eta Kontrol Batzordeak zainduko dute merkatuko baldintzen arabera egiten direla, eta antzeko egoeran dauden akziodunekiko berdintasunezko tratuz Sozietateak eta taldean txertatutako sozietateek kontseilariarekin, aurreko atalean aipatutako akziodunekin edo haiekin erlazionatutako pertsonekin egiten diren transakzioak.
3. Transakzioak sozietatearen negozioen barruko eragiketa arruntak badira, eta ohiko izaera edo izaera errepikatua badute, nahikoa izango da Administrazio Kontseiluak eragiketa-ildoaren eta haiek betetzeko baldintzen aurretiazko baimen orokorra ematea, Ikuskaritza eta Kontrol Batzordearen aldeko txostena duela.
4. Hala ere, Administrazio Kontseiluaren baimena ez da beharrezkoa izango transakzioek hiru baldintza hauek betetzen dituztenean: (i) baldintzak estandarizatuak dituzten eta bezero-kopuru handi bati masan aplikatzen zaizkien kontratuen arabera egitea; (ii) ondasunaren edo zerbitzuaren hornitzailek izaera orokorrean zehaztu dituen prezio eta tarifetan egitea; eta (iii) haien kopurua ez izatea Sozietatearen urteko diru-sarreraren ehuneko 1etik (% 1) gorakoa, eragiketa egiten den datan itxita dagoen azken ekitaldiko urteko kontu ikuskatuen arabera.

5. Akziodunen Batzar Nagusiak aztertu behar du baimena, ezinbestean, kontseilari batekin egiten den transakzioaren balioa sozietatearen aktiboen ehuneko hamarretik (% 10) gorakoa denean.
6. Sozietateak artikulua honetan jasotzen diren transakzioen berri emango du Legeak aurreikusten duen kasuetan, eta zehazten den helmenez. Era berean, Sozietateak edo taldearen sozietateek kontseilariekin edo haien kontura jarduten dutenekin dituzten eragiketen informazioa jasoko du urteko kontuen memorian, eragiketarako Sozietatearen eragiketarako arruntetik kanpo daudenean edo ez direnean egiten merkatu-baldintza arruntetan.

39. artikulua. Informazio-betebeharrak

1. Sozietateari jakinarazi behar dio kontseilariak Sozietatearen zer akzioen titularra den zuzenean, edo, zeharka, erlazioatutako pertsonen bidez, betiere Sozietatearen Balore Merkatuetako Jokabideari buruzko Barne Araudian zehazten den moduan.
2. Kontseilariak Sozietateari jakinarazi behar dio zer partaidetza edo interes dituen (akordioen edo edozein motatako tresnaren bidez; adibidez, gordailuen ziurtagiriak, eratorritako tresnak, etab) Sozietatearen helburu sozial den jarduera bera, antzekoa edo osagarria egiten duen edozein sozietatetan, eta zer kargu edo funtzio dituen, bere kontura edo besteren kontura, Sozietatearen helburu soziala den edozein jarduera osagarritan.
2. Hauen berri ere eman behar dio kontseilariak Sozietateari:
 - a) Beste konpainia edo erakunde batzuetan dituen karguak edo jarduerak, eta gainerako betebeharrak profesionalak. Zehazki, beste edozein konpainia edo erakundetan edozein kontseilari- edo zuzendaritza-kargu onartu aurretik (taldeko beste sozietate batzuetan edo taldearen interesak ordezkatzen jarduten duen beste sozietateetan betetzeko eskatzen zaizkion karguak izan ezik), Izendapen eta Ordainketa Batzordeari eman behar dio horren berri kontseilariak.
 - b) Egoera profesionaleko edozein aldaketa, kontseilari izendatzeko izan ziren izaerari edo baldintzari eragiten diona.
 - c) Kontseilarien kontra hasiera ematen zaien prozedura judizialak, administratiboak eta bestelako prozedurak, haien garrantziagatik edo ezaugarriengatik, Sozietatearen izen onari larriki eragin diezaioketenak. Zehazki, Sozietateari jakinarazi behar diete kontseilari guztiek, lehendakariaren bidez, auzipetuak izan diren edo ahozko epaiketa ireki zaien Kapital Sozietateen Legearen 23. artikuluan zehazten den delituren batengatik. Kasu horretan, ahalik eta azkarren aztertuko du kasua Administrazio Kontseiluak, eta egoera zehatzak aztertuta, erabakiko du kontseilariak bere karguan jarraitu behar duen ala ez.
 - d) Oro har, Sozietateko kontseilari izateko jardueran garrantzitsua izan daitekeen edozein gertaera eta egoera.
3. Helbide elektronikoa eman behar dio kontseilariak Sozietateari, bide hori erabil dadin, hala erabakiz gero, Administrazio Kontseiluen deialdia egiteko, eta hala badagokio, informazioa emateko.

40. artikulua. Betebeharrak zabaltzea

Kontseilariak Sozietatearekin dituen erlazioei buruz Araudiaren titulu honetan jasotzen diren betebeharrak taldeko sozietatearekin izan daitezkeen erlazioetan ere aplikatzen direla ulertuko da, analogiaz.

Era berean, Araudiaren titulu honetan jasotzen diren betebeharrak eskatuko zaizkie pertsona juridiko diren kontseilarien ordezkari diren pertsona fisikoei.

VIII. KAPITULUA. KONTSEILUAREN INFORMAZIO ETA ERLAZIO-POLITIKA

41. artikulua. Webgunea

1. Webgune korporatiboa izango du Sozietateak akziodunek informazioa jasotzeko duten eskubidea betetzeko eta balore-merkatuei buruzko legediak eskatzen duen informazio garrantzitsua zabaltzeko. Han jasoko dira aplikagarri den araudiak eskatzen dituen dokumentuak eta informazioak, Akziodunen Batzar Nagusietarako deialdiari buruzko informazioa eta dokumentazioa barne; halaber, leku izango du Administrazio Kontseiluak bitarteko horren bidez eskuragarri jartzea erabakitzen duen beste edozein dokumentaziok eta informaziok ere.
2. Administrazio Kontseiluari dagokio Sozietatearen webgune korporatiboan jaso behar den informazio guztia izatea, aplikagarri den araudiak ezartzen dituen betebeharrak betetzeko, eta hura eguneratzearen erantzule ere izango da, indarrean den legediak eskatzen duen moduan.

42. artikulua. Erlazioak akziodunekin

1. Komunikazio- eta harreman-politika bat definitu eta sustatuko du Sozietateak akziodunekin, inbertsiogile instituzionalekin eta botoa duten aholkulariekin. Harreman horrek erabat errespetatuko ditu merkatuaren gehiegikerien aurkako arauak, eta tratu bera emango die posizio berean dauden akziodunei.

Webgunean argitaratuko du Sozietateak politika hori, eta adieraziko du nola jarri den praktikan eta zein diren solaskide arduradunak.

2. Bide egokiak zehaztuko ditu Administrazio Kontseiluak akziodunek Sozietatearen kudeaketari buruz egin ditzaketen proposamenak ezagutzeko.
3. Kontseiluak, kontseilari batzuen bidez eta egokitzat hartzen diren goi-zuzendarien bidez, Sozietatearen eta taldearen martxari buruzko informazio-bilerak antolatu ahal izango ditu Espainiako edo beste herrialde batzuetako finantza-gune garrantzitsuenetan bizi diren akziodunentzat.
4. Halaber, mekanismo batzuk zehaztuko ditu Administrazio Kontseiluak Sozietatearen akziodun diren inbertsiogile instituzionalei aldian-aldian informazioa emateko. Hala ere, Administrazio Kontseiluaren eta akziodun instituzionalen harremanetan ezingo da eman gainerako akziodunen aurrean pribilegio- edo abantaila-egoera bat sor dezakeen informaziorik.
5. Akziodunen artean izaten diren mugimenduen eta akziodun garrantzitsuek, inbertsiogileek eta kalifikazio-agentziek Sozietateari eta taldeari buruz duten iritzia berri emango zaie aldian-aldian kontseilariei.
6. Administrazio Kontseiluak edo kontseiluko edozein kidek egindako boto-eskuordetzearen eskaera publikoetan adierazi egin behar da zer zentzutan bozkatzeko duen ordezkariak akziodunak argibideak eman ez dituenean.
7. Administrazio Kontseiluak akziodunen parte-hartze informatua sustatuko du batzar orokorretan, eta egoki diren neurriak hartuko ditu Akziodunen Batzar Nagusiak Legeak eta Sozietatearen Estatutuek ematen dizkion funtzioak modu eraginkorrean betetzen dituela errazteko.

Zehazki, neurri hauek hartuko ditu Administrazio Kontseiluak:

- (i) Akziodunen Batzar Nagusia egin aurretik, ahaleginduko da akziodunen esku jartzen indarrean den legediak eskatzen duen informazio gutzia, eta orobat, legeak eskatu ez arren, interesgarria izan eta arrazoiz eman daitekeena.
- (ii) Akziodunek Akziodunen Batzar Nagusia egin aurretik egiten dituzten informazio-eskaerei erantzungo die, ahal bezain azkar.
- (iii) Akziodunek Akziodunen Batzar Nagusian egiten dituzten galderei erantzungo die, ahal bezain azkar.

43. artikulua. Erlazioak kontu-ikuskariekin

1. Ikuskaritza eta Kontrol Batzordeari dagokio Administrazio Kontseiluari proposatzea, Akziodunen Batzar Orokorrean aztertzeke, Sozietatearen urteko kontuen kontu-ikuskariaren izendapena (kontratazio-baldintzak eta agindu profesionalaren helmena zehaztuz), berritzea eta kargutik kentzea, eta ikuskaritza-kontratua betetzea.
2. Ikuskaritza eta Kontrol Batzordeak ez dio proposatuko Administrazio Kontseiluari, eta Kontseiluak ez du eramango bamenik Akziodunen Batzar Nagusira bateraezintasun-kasuren batean dagoen ikuskaritza-firma izendatzeko, kontuen ikuskaritzen araudian jasotzen denari jarraikiz, ez eta Sozietateak ordaindu beharreko ordainsaria azken ekitaldiko guztizko diru-sarreraren ehuneko 5etik (% 5) gorakoa denean ere, kontzeptu guztiengatik.
3. Urteko kontuak behin betiko izaeraz egiten ahaleginduko da Administrazio Kontseilua, kontu-ikuskariak zalantzarik edo salbuespenik izan ez dezan. Halakorik den salbuespenezko kasuetan, argi azalduko dizkiete akziodunei zalantza edo salbuespen horiek bai Ikuskaritza eta Kontrol Batzordeko lehendakariak bai kanpo-ikuskariak. Hala ere, Kontseiluak uste duenean mantendu egin behar duela irizpidea, publikoki azalduko du desadostasunaren edukia eta zenbaterainokoa.

44. artikulua. Harremanak Sozietatearen zuzendarien goi-kargudunekin

Administrazio Kontseiluaren eta Sozietateko goi-zuzendarien arteko erlazioan, Araudi honetan zehazten den moduan, Administrazio Kontseiluko lehendakariaren edo halakorik bada, lehen exekutiboaren (Araudi honen 2. artikuluan definitzen den moduan) bitartez bideratuko dira, eta halakorik ez bada, Administrazio Kontseiluko idazkariaren bidez.

IX. KAPITULUA. BETETZEA, ZABALTZEA ETA INTERPRETATZEA

45. artikulua. Betetzea eta zabaltzea

1. Administrazio Kontseiluko kideek eta Sozietateko goi-zuzendariak Araudi hau ezagutzeko, betetzeko eta betearazteko betebeharra dute eragiten dieten kontuetan.
2. Araudi honen ale bat emango die Administrazio Kontseiluko idazkariak guztiei, izendapenak onartzen dituztenean, edo kontratazioa gauzatzean, eta adierazpen sinatu bat eman behar diote idazkariari, adieraziz ezagutzen eta onartzen dutela Araudiaren edukia, eta horren arabera zehazten zaizkion betebeharrak guztiak betetzeko konpromisoa hartzen duela.
3. Unean-unean aplikagarri den arautegiak zehazten dituen betebeharren kalterik gabe, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu Sozietatearen Administrazio Kontseiluak, Araudia akziodunen eta, oro har, inbertsiogileen artean zabaltzeko.

46. artikulua. Interpretatzea

1. Araudi hau interpretatzean, kontuan hartu behar dira aplikagarri diren lege- eta estatutu- arauen nahiz sozietate kotizatuen gobernu korporatiboari buruzko printzipioak eta gomendioak, bai Espainiako agintaritzek emanak, bai inguruko herrialdeek eman eta indarrean daudenak, edo agintari horien aginduaren arabera zehaztutako batzorde bereziek edo lantaldeek emanak.
2. Administrazio Kontseiluan ebatziko da Araudi honen interpretazioarekin sortzen den edozein zalantza edo desadostasun, gehiengoz, eta, bestela, lehendakariak ebatziko du.

47. artikulua. Epeak zenbatzea

Araudi honen ondorioetarako, egun baliodunak izango dira urte naturaleko egun guztiak, larunbatak, igandeak eta Bilboko jaiegunak izan ezik.